




Laburpen-agiria

ZAINTZ HERRITARREN INGURUKO ELKARRIZKETAK



zaintzen
hiria



Laburpen-agiria

ZAINITZ HERRITARREN INGURUKO ELKARRIZKETAK



Zaintzerritarren inguruko elkarrizketak

Cirla Santi, Victor Vacacela, Iciar Isasi, Nathaly Saritama, Lisset Coba, Cristina Vega, Marta Jiménez, Silvia Piris, Cristina Santillan e Irati Muñecas.

Farmamundi-ren proiektua, Colectiva XXK: Feminismos, pensamiento y acción, IQBSS (Instituto Quechua de Biotecnología Saccha Supay), OPIK (Grupo de Investigación en Determinantes Sociales de la Salud y Cambio Demográfico), Erabide Emakumeen Elkarte eta FLACSO Ecuador-ren lankidetzarekin.

Irudiak, diseinua eta maketazioa: Bea Aparicio.

Itzulpena: Gizane Urkidi

Dokumentu hau, Zaintzen Hiria proiektuaren barruan sortu dugu. Proiektuak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren finantzazioa jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bea Aparicio

Nor garen eta nondik gatozen

“Zainketen Hiria” Farmamundiren proiektua da, eta, Euskadiren zein Ekuadorren arteko elkarlaneko ikerketaren nahiz jakitateen el-karrizketaren bidez, zainketetan oinarritutako herritartasun globala-ren eredu eta alternatiba berriak zehaztea dauka helburu.

Proiektuaren esparruan, talde sustatzailea eratu da, eta 6 erakunde sozial zein akademikok osatzen dute. Haien ibilbideak eta interesak era askotakoak dira, bateratasunetik zein elkarrizketatik lan egiteko gogoak dute eta paradigma berriak nahiz mundua ulertzeko modu berriak bilatzea daukate helburu. Zehatz-mehatz, Ekuadorko 2 era-kunde (IQBSS - “Sacha Supai” Bioteknologiako Institutu Kitxua eta FLACSO Unibertsitateko Soziologiako eta Genero Ikaskuntzetako Saila) eta Euskadiko 4 erakunde gara (Erabide Emakume Elkartea, EHUko Osasunaren eta Aldaketa Demografikoaren Baldintzatzaile Sozialen Ikerketarako Taldea, Farmamundi bera eta, dinamizatzaile moduan, XXK Giza Taldea. Feminismoak, pentsamendua eta ekin-tza).

2023ko maiatzetik azarora, 6 erakundeok hilero batzartu gara, jaki-tateak eta garapen komunitariorako alternatiba berriak modu ko-lektiboan eratzeko eta, horrela, gizakien nahiz planetaren zainketak erdigunean jartzeko.

Errespetuzko elkarrizketa abian jarri eta garatu egin dugu. Bertan, gainera, arretaz entzun dugu, beti bezala, honako hauxe aitortzeko

eta baloratzeko asmoz:

- Era guztietako mundu-ikuskeren, sinesmenen, kulturen eta balioen ordezkariak gara, eta era bateko zein besteko testuinguruei zein errealita-teei aurre egin behar diegu. Hori dela eta, ezin ditugu zainketak modu berean eta kode berbe-rez jorratu.
- Hala ere, badago antzekotasunik edo kezka ba-teraturik, eta, batu ez ezik, nolabait ere lotzen gaituzte.

Prozesu osoari begira, funtsezkoa izan da elkargunetzako ikuspegi kritiko feminista ezartzea, eta zeharka aurkezteko ahalegina egin da prestatutako proposamena egituratzen duten bi multzo handi haue-tan.

Agiri hau 6 hilabete horietan garatutako elkarrizketaren emaitza da. Bi multzo handiren inguruan egituratu dugu:

- 1 Etorkizunerako aukerak.**
- 2 Bidea argitzeko ideiak.**

1 Etorkizunerako aukerak

— Bizia erdigunean jartzea eta zaintzea

- Sistema kapitalista, arrazista, kolonialista eta patriarkalak indarkeria darabil bere horretan jarraitzeko, eta, horren ondorioz, kapitalaren zein biziaren arteko gatazka sortzen da. Indarkeria multisistemikoek gero eta eragin handiagoa dute era guztietako bizitzetan. Hain zuzen ere, pandemiaren ostean, ingurunea eta lidergo zein lotune komunitarioak suntsitzen dituzten logikak eta erauzketa-jarduerak areagotu dira. Ekuadorko egoera nahikoa zaila eta dramatikoa da, mendeetan eta mendeetan arpilaketa sistemikoa jasan duelako. Euskadin, ordea, logika horiek gero eta agerpen handiagoa dute (erauzketa-proiektuak, pribatizazioa, gizarte-sarearen ahulezia...).
- Herri indigenak eta, batez ere, emakumeak indarkeria horien eraginpean daude erabat, tradizioaren arabera bizia eta lurraldea defendatzeko zeregina bete dute-eta. Gure ustez, lurraldea gaixotzen bada, gure gorputzak ere gaixotzen dira. Uste dugu lotune komunitarioak hausten direnean emakumeen aurkako indarkeria sendotzen dela, besteak beste.
- Indarkeria horien aurrean, biziaren jasangarritasuna aurkezten da proposamen politiko irrikagarri moduan, eta

galdetu egiten da zein den bizi eta eutsi nahi dugun bizitza ona eta zer egiten dugun bizitza hori guztiontzat lortzeko.

- Biziaren jasangarritasunaren proposamenak lotune estuak dauzka Sumak Kawsayrekin. Izan ere, Abya Yalako herri indigenen zibilizazioko proposamena/errealitatea da, giza bizitzatik haratago beste bizitza eta subjektu batzuk dau dela aitortzen du eta, beretzat, gizakiek, izaki espiritualek, animaliek eta naturak osotasuna eratzen dute.
- Iparralde globalean ere, bizia defendatzen duten zenbait proposamen kritiko daude (ekofeminismoa eta osasunaren baldintzatzaile sozialen ereduak, besteak beste), baina, biziaren dimentsioak atal estankoagoetan jartzen dituzte-nez, ez da Sumak Kawsayk eskaintzen duen ikuspen integrala agertzen.

— Elkarrekiko menpekotasuna eta eko-menpekotasuna

- Ustezko autosufizientzia europarra beste herri batzuen lepotik eratu da harreman geopolitiko bortitzetan. Kolonialismoak modu material eta espiritualean suntsitu ditu jatorrizko herriak.

- Mendebaldeko autosufizientiaren ameskeriaren aurrean, badakigu bizitzeko elkarren arteko laguntzak behar ditugula geure bizitza osoan, eta aitortu egiten dugu ez dugula bizirauterik menpekotasunik ez badaukagu.
- Mendebaldeko indibidualismoaren aurrean, Ekuadorko herri indigenen mundu-ikuskerak giza taldea jartzen du erdigunean. Hori dela eta, indibidualtasunak ia-ia ez du pisurik, eta onartu egiten da gizakiontzako bizi-iturri nagusia dela lurraldea. Era berean, izaki bizidun ez-gizatiarrak eta espiritualak ere badira gizakion bizitzaren parte.
- Beraz, behar besteko apustua egiten dugu guztien zainketaren alde eta biziari eusteko erresistentzia-modu bihurtzen den sendaketa kolektiboaren alde. Zainketa bateratu horrek banakako ongizatearen ideia gainditzen du, eta bizi guztien zein gorputz guztien zainketaren alde egiten du, anitzak direla eta hierarkiarik ez dagoela kontuan hartuta. Zainketa horren ondorioz, gainera, gizakien eta gizakiak ez direnen arteko harreman harmoniatsua sortzen da, euskarri daukagun eta bizia ematen digun ingurunea kontuan hartuta.

Erkidegoak indartzea

- Erkidegoari buruz hitz egitean, testuingurua zein den azaldu behar dugu beti. Oso errealitate anitzak badira ere, ho-

mogeneizatzeko arriskua dugu batzuetan. Prozesu honetan, bi formaren arteko lotuneak eta aldeak ikusten saiatu gara: Ekuadorko jatorrizko herrien bizi-erkidegoak eta Euskadiko auzoetan sustraitutako giza taldeak.

- Zenbait testuingurutan, instituzioak erabat desagertu dira edo gero eta desagertuago daude, arlo publikoaren inguruko fedegabetasuna eta pribatizazioa gero eta handiagoak direla kontuan hartuta. Hori dela eta, sare komunitarioaren bidez sendatzerik badaukagula uste dugu. Anitzak diren lotune eta eremu komunitarioak funtsezkoak dira guztion zainketarako, baina, batez ere, egoera txarragoan daudenen zainketarako.
- Hain zuzen ere, erkidegoek oso zeregin garrantzitsua bete dezakete emakumeen aurkako indarkeriaren arretan eta prebentzioan, Ekuadorko jarduketa komunitarioetan eta Euskadin antzemandako zenbait jarduketatan ikusten den bezala.
- Behar besteko apustua egiten dugu, erkidegoen arteko aliantzak sortzeko eta agerian jartzeko, sareak indartzeko, eremu komunitarioak geureganatzeko eta partekatzeko, elkarguneak suspertzeko eta, erkidegoarekin nahiz erkidegoarentzat, estatuan eragina edukitzeko.
- Horrez gain, guretzat ezinbestekoa da erkidegoek euren zainketa-tresnak edukitzea edota sendotzea eta, horretara-

rako, herri-jakituriari balioa ematea. Esate baterako, Covid-19aren pandemian, honako haxe izan zen Ekuadorko jatorrizko herrien giltzarri komunitario indigena: “elkarrekin egon behar gara, geure burua zaindu behar dugu eta lurraldea isolatu behar dugu”.

Erakundeak eraldatzea

- Oinarri komunitarioko erakundeek funtsezko zeregina dute gizarte-sarea indartzeko orduan. Euren erkidegoen ongizatearen alde lan egiten dute, eta zainketa bera gero eta elementu garrantzitsuagoa da haientzat. Hori dela eta, haien apustu politikoaren parte ere bada askotan.
- Nolanahi ere, aitortu egiten dugu erakundeko kide guztiek ez dutela sentitzen zainduta daudenik eta, erakunde askotan, dinamika bortitzak gertatzen direla. Beraz, behar besteko apustua egiten dugu arlo espiritualarekin lotuago dauden antolaketa-jarduketak garatzen dituzten erakundeen alde, bertan errespetua, norberaren zainketa, emozioak eta gorputzak erdigunean daudela kontuan hartuta. Hain zuzen ere, indarkeriarik gabeko erakundeak izan behar dira, eta, bertan, zainketak aitortu eta birbanatu behar dira gizonen zein emakumeen artean.
- Aitortu egiten dugu oraindik ere badagoela lanik, partaidetza bera berdintasunezkoa izan dadin. Horregatik, hain

bertikalak eta indibidualistak ez diren lidergo eta antolaketajarduketak berrien aldeko apustua egiten dugu. Bertan, bizitza anitzen eta bizi-zikloaren arabera parte hartzeko/zuzentzeko zenbait modu sustatu eta baloratu behar dira. Bertan, belaunaldi desberdinetako gizon eta emakumeek eta, batez ere, oihartzunik ez dutenek hausnartzeko, tabuak berrikusteko eta adierazteko aukera eduki behar dute. Uste dugu elkarrekin lan egin arren ez dugula modu berean lan egin behar, ezta proportzio berean eta erritmo berean ere. Behar besteko apustua egiten dugu, bere aberastasunen zein jakintzen arabera nor bere ekarpena egin dezan eta seguru, eroso eta aitortuta sentitu dadin.

- Hain zuzen ere, bete-betean lan egiteko apustua egiten dugu, emakumeek euren erakundeetan eta erkidegoetan parte hartzeko eta adierazteko aukera eduki dezaten. Erkidegoan eta etxean zereginak modu tradizionalan banatu beharrean, emakumeak euren lekua zein ahotsa eskatzen ari dira, eta, askotan, lidergo komunitarioak garatzen dituzte. Aitortu egiten dugu testuinguruaren arabera lan handiagoa edo txikiagoa egin behar dela zentzu horretan.
- Guretzat garrantzitsua ere bada erakundeetan bertan belaunaldi arteko ikuspegia sendotzea. Egiaztatu egiten dugu erakunde askotan txandaketarik ez dagoela. Ekuadorren, esaterako, erkidegoetako gazteek erkidegoetatik urruntzen dituzten hezkuntza-prozesuei ematen diete lehentasuna, profesionalizatzen ari dira eta, horrela, gero

eta gutxiagotan parte hartzen dute. Euskadin, txandakete eta belaunaldi arteko elkarbizitzak ere badute gainditu beharreko erronkarik. Horren aurrean, garrantzitsua da aitortzea aurretiko genealogiaren parte garela, testuinguru horrek baldintzatu egiten gaituela eta zaindu egin behar dugula, belaunaldi berriek egin ditzaketen ekarpenak ahaztu gabe. Gazteenen eskaerek eta antolaketa-moduek funtsezko zeregina eduki behar dute beti belaunaldi nagusienekin garatutako elkarrizketan.

— **Genero-alborapenak kolokan jartzea eta gainditzea**

- Tradizioari begira, emakumeak zaintzaileen zereginean gizarteratu diren arren eta biziaren defentsan funtsezko zeregin baliotsua izan duten arren, ez dugu hori idealizatu behar. Beti ez da erraza gainerakoen (familia, aktibismoa, ingurune naturala...) eta norberaren zainketen arteko balantza orekatuari eustea. Ekuadorren nahiz Euskadin, emakumeek zaintzaile moduan duten nekearen eta zainketak eskatzean dituzten zailtasunen zenbait adibide ditugu.
- Hartara, proposamena zainketen aitortzan eta erantzukidetasun zein banaketa handiagoan aurrera egitea da beti.

2 Bidea argitzeko zenbait ideia

EKUADOR		
	Lan-lerroak/estrategiak	Ekintza zehatzak
Indarkeriarik gabeko lurralde eta erkidego biziak	<ul style="list-style-type: none"> ● Bizitza ederra sustatzea, elkarrekikotasunaren, birbanaketaren, errespetuaren zein abegikortasunaren printzipioetan oinarrituta eta Sumak Kawsayren lau zutabeetan antolatuta (erkidegoa, ekonomia, lurraldea eta jakitateak/jakintzak). ● Indarkeriarik gabeko bizitzak ziurtatzea. Antzematea eta erantzuna ematea. Indarkeria zer den eta arbasoen jarduna zer den bereiztea. ● Estraktibismoaren aurrean, lurraldeak defendatzea. ● Arbasoen ugalketa-ekonomia sustatzea. ● Erkidego indigenak (ayllus) zainketen erkidegoak direla aitortzea. ● Sendaketaren ikuspegitik lan egitea. ● Jarduketa tradizionalak berreskuratzea eta indartzea. ● Egunez egunekotik lan egitea, zereginak garatzea eta sentipenak integratzea. ● Zenbait erakunderen elkarguneak bultzatzea, gai desberdinak jorratu arren helburu bererako bat egiten dutenean.¹ 	<ul style="list-style-type: none"> ● Txakra lantzea. ● Behar besteko tresnak edukitzea, herriek eta, batez ere, emakumeek landa-ingurunean nahiz hirigunean jasandako era guztietako indarkeriak antzemateko eta haiei buruz hausnartzeko. ● Ibilbide “ofizialak” antzematea, emakumeen aurkako indarkeriei erantzuna emateko. ● Ekintzarako ibilbide kolektiboak egitea, era bateko eta beste indarkeriak desagerrarazteko. ● Sendaketarako tailerrak/Sendaketarako, abegirako eta arbasoen medikuntzarako etxeak egitea. ● Emakumeek euren eremuak edukitzea (zeramika, esaterako), hitz egiteko/partekatzeke. ● Mingak elkarrizketarako guneak izatea. Bertan, honako gai hauek jorratu litezke: indarkeria, gizonen eta emakumeen partaidetzarako modu ugariak...

1: Bidea argitzeko ideiak modu kolektiboan lantzeko ariketa honetan, azken unea izan genuen. Bertan, lurralde bakoitzak bere aukera eduki zuen, beste lurraldeak proposatu zituen eta berregin nahi zituen berriazko ekintzak edo lan-lerroak hautatzeko. Hau da, Ekuadorrek Euskadiko ideiak hautatu zituen eta alderantziz. Hautatutako ideia horiek **• kalora berdez** nabarmenduta agertzen dira tauletan.

EKUADOR

Lan-lerroak/estrategiak		Ekintza zehatzak
<p>Generoaren eta belaunaldi arteko arloko begiradak: funtsezko bi zutabe</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Arbasoen jakitateak zein jakintzak berreskuratzea eta adinakoek gazteei igortzea. ● Belaunaldi artekotasunaren ikuspegia kontuan hartzea. ● Zainketa defentsarako, antolakuntzarako eta baliabideetarako lana dela aitortzea. ● Behar besteko baldintzak sortzea, zainketa berdintasunean eman dadin. Gizonen eta emakumeen artean erantzukidetasuna eta zainketetako zereginen birbanaketa sustatzea. ● Ohiturazko zuzenbidearen ikuspegia kontuan hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Behar besteko tresnak edukitzea, emakumeek zainketen arloan garatzen dituzten zeregina eta lanak agerian jartzeko eta aitortzeko. ● Gazteekin lan egitea, indartu daitezten eta mezuak erkidegoetara eraman ditzaten.
<p>Erkidego zainzaileak, zainketen aldeko apustua abian jartzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Beste era bateko lidergoak aitortzea. Emakumeen lidergoa. ● Emakumeen arteko sareak ehuntzea. ● Partaidetzarako eremu atseginak eratzea mendekoak ardurapean dituztenentzat eta pertsona dibertsoentzat ere bai, euren ere mendekotasunak izan ditzakete-eta. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Geure burua ebaluatzea, guztiok berberari buruz hitz egiten dugun ikusteko. Ideia partekatuak diren. Elkarri modu kritikoan begiratzea.

EUSKADI

	Lan-lerroak/estrategiak	Ekintza zehatzak
<p>Indarkeria-rik gabeko lurralde eta erkidego biziak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Nola eta zer kontsumitzen dugun arretaz aztertzea eta, horretarako, hurbiltasuna sustatzea. Geure ingurunea ezagutzea. Jakitea eta jakinaren gainean erabakitzea. ● Landa-ingurunetik nahiz hirigunetik erantzutea nolako lurralde biziak eduki nahi ditugun. Horrelako lurraldeak egia bihurtzeko erantzukidetasuna hartzea. ● Hirigunearen eta landa-ingurunearen arteko lotuneak indartzea. Elkar ezagutzea, aliantzak ehuntzea... ● Arlo komunitarioari balioa ematea; esate baterako, euskarri ditugun harremanen sarea. ● Erauzketa-proiektuak han-hemenka agerian jartzea. ● Zenbait erakunderen elkarguneak bultzatzea, gai desberdinak jorratu arren helburu bererako bat egiten dutenean (adibidez, Bilboko Hegoaldeko Auzoen Plataforma). ● Bizitza ederra sustatzea. ● Sendaketaren ikuspegitik lan egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Informazioa partekatzea eta erauzketa-proiektuei buruzko eztabaida kritikoak edukitzea. ● Tresna zehatzak edukitzea, sarea egiteko eta elkarrekiko menpekotasuna nahiz ekomenpekotasuna agerian jartzeko (esate baterako, Zaintzen Greba Orokor Feministarekin lotutako Bilboren Bilakabidea edo auzoetako elikaduraren burujabetzan zehar egindako ibilbideak). ● Osasun-aktiboak mapatzea, auzoa ezagutzeko, zer, nola eta norekin... egiten ari den jakiteko eta harreman horiei onura ateratzeko. ● Auzoko/herriko partaidetzazko osasun-mahaietara joatea. ● Kontsumo-taldeak eratzea. ● Ekintzarako ibilbide kolektiboak egitea, era bateko eta beste indarkeriak desagerrarazteko. ● Emakumeen berezko eremuak sustatzea, hitz egiteko/partekatzeke.

EUSKADI

Lan-lerroak/estrategiak

Ekintza zehatzak

Generoaren eta belaunaldi arteko sunaren arloko begiradak: funtsezko bi zutabe

- Zainketei buruz hitz egitea feminismoaren lorpena dela aitortzea.
- Belaunaldi arteko ikuspegia kontuan hartzea.
- Arbasoen jakitateak zein jakintzak berreskuratzea eta adinekoek gazteei igortzea.
- Bi ardatz horietan, apustu politikoaren alde egitea eta tresna zehatzak eskaintzea, diskurtso hutsean ez geratzeko.
- Elkargunetzaren eta berdintasunaren arloko ikuspegia integratzea. Egoera zaurgarrian edo ezegonkorrean daudenen kalitateko partaidetza bultzatzea.

- Belaunaldi arteko elkarbizitzarako eremuak sortzea; esate baterako, adinekoekin bizi diren gazteak.
- Gazteekin lan egitea, indartu daitezten eta mezuak erkidegoetara eraman ditzaten.
- Behar besteko tresnak edukitzea, emakumeek zainketen arloan garatzen dituzten zeregina eta lanak agerian jartzeko eta aitortzeko.

EUSKADI

Lan-lerroak/estrategiak

Ekintza zehatzak

Erkidego zaintzaileak, zaintzen aldeko apustua abian jartze-ko

- Barruko mailan nahiz lurraldearekiko lotuneetan zainketez arduratzea.
- Apustu politiko hau erakundeen nortasunean eta oinarrietan integratzea. Behar bezala zeharkakotzea esparru konzeptualean, egituran, antolaketa-moduetan, partaidetzarako guneetan...
- Erakundeen parte diren pertsonen eta bizitzen aniztasuna integratzea.
- Partaidetzarako eremu atseginak eratzea mendekoak ardurapean dituztenentzat eta pertsona dibertsoentzat ere bai, eurek ere mendekotasunak izan ditzakete-eta.
- Erakundeetan lan egiteko ditugun modu tradizionalak eraldatzea, jende gehiagorengana iristeko.
- Beste era bateko lidergoak aitortzea. Emakumeen lidergoa.

- (Auto)diagnostikoak egitea, nola gauden ikusteko.
- Geure burua ebaluatzea, guztiok berberari buruz hitz egiten dugun ikusteko. Ideia partekatutakoak diren. Elkarri modu kritikoan begiratzea.
- Ebaluazioak egitea, egiten ari garena egokia den jakiteko.
- Ordutegiak egokitzea, jende guztiak parte hartzeko aukera izan dezan.
- Tresnen sorta edukitzea, partaidetzarako eremuak antzemateko eta hobetzeko.



Proiektua garatzean egindako proposamenak

EUSKADIKO GIZARTE-SAREA

Lan-lerroak/estrategiak

Ekintza zehatzak

Indarkeria-rik gabeko lurralde eta erkidego biziak

- Samurtasuna aldarrikatzea.
- Behar besteko kontzientzia sortzea, elkarrekiko menpekotasunaren eta ekomenpekotasunaren bidez erantzukizuna sustatzeko. Gizakion arteko zainketa eta bizileku dugun inguru-nearen zainketa nahiz errespetua bermatzea.
- Nork bere burua kolokan jartzea: geure bizimoduak eta kontsumo-moduak etengabe kolokan jartzea.
- Gorputzen eta lurraldeen aurkako indarkeriari aurre egiteko asmoz lan egiten duten erakundeei laguntzea eta haiekin bat egitea.
- Arlo publikoaren jakitun dauden herritar kritikoak izatea. Arlo publikoa defendatzea eta erantzukizuna hartzea.
- Erkidegoetatik, herri-hezkuntza sustatzea. Elkarrekin bizitzeko ikaskuntza kolektiboak eta irakaskuntza bateratuak.

- Zainketen dekalogoia egitea, lanerako edo bileretarako saioei hasiera emateko.
- Kontsumo-alternatiben direktorioa egitea.
- Prestakuntzak egitea.
- Antzeko erakundeekin proiektu bateratuak garatzea.
- Erosotasun-gunetik irtetea beste eremu batzuetan parte hartzeko.
- Informazioa lortzea eta arlo publikoaren aldeko mobilizazioetan parte hartzea.
- Balio komunitarioak erakundeen eta erkidegoen zereginen zeharkakotzeko gidaliburua prestatzea.
- Erkidegoen jakitateetan oinarritutako autoprestakuntzarako eremuak sortzea. Guztien intereseko gaiak bilatzea, jakintzak erkidegoko bertako kideen artean bilatzea, jakintza modu kolektiboan eratzea...

EUSKADIKO GIZARTE-SAREA

Lan-lerroak/estrategiak

Ekintza zehatzak

Generoaren eta belaunaldi arte-kotasunaren arloko begiradak: funtsezko bi zutabe

- Narrazioak zein diskurtsoak eraldatzea eta zereginak nahiz estereotipoak aldatzea.
- Belaunaldien arteko zainketa-sareak bultzatzea.
- Emakumeak zaintzea.
- Berdintasunean heztea.

- Terminoak edo gauzak aipatzeko modua aldatzea eta, haien ordez, taldean zehaztutako termino berriak erabiltzea.
- Adin desberdinetakoek prozesu bateratuetan bete-betean parte hartzea.
- Ordutegiak eta eremuak egokitzea, partaidetza suspertzeko.

Erkidego zainzaileak, zainketen aldeko apustua abian jartzeko

- Balio komunitarioetan heztea.
- Laguntzarako sareak eratzea eta elikatzea.
- Zainketak berariaz lantzen dituzten erakundeei laguntzea eta haiekin bat egitea.
- Erkidegoa ehuntzea, auzoko eragile guztiak kontuan hartuta eta ezagututa eta hezkuntza-erkidegoak, gizarte-erakundeak, saltegiak, herritarrak... ere kontuan hartuta.
- Gainerakoak eta geure burua zaintzea.

- Prestakuntza-saio partekatuak garatzea, esperientziak trukatzea eta jakitateen inguruko elkarriketa egitea.
- Nire auzoko/erkidegoko erakundeen direktorioa/mapa egitea.
- Osasun emozionalerako errezetak edukitzea.
- “Nola zaude?” berreskuratzea, baina formalismo hutsetik haratago, partekatze eta entzuteko zentzua zein gunea eduki ditzan.
- Behar besteko tresnak edukitzea, autozainketarako premiak antzemateko.
- Auzoetan/erkidegoetan berariazko zainketa-eremuak eratzea.

ERABIDE EMAKUME ELKARTEA

Lan-lerroak/estrategiak

Ekintza zehatzak

Indarkeria-rik gabeko lurralde eta erkidego biziak

- Elkarrizketa eta enpatia bultzatzea, jendeak bere historiak eta esperientziak partekatu ditzan, lagungarria izan daitekeelako aurreiritziak eta estereotipoak murrizteko orduan.
- Kohesio soziala sendotzea, jatorri zein adin desberdinetako jendea biltzeko eta, horrela, guztien artean erkidego kohe-sionatuagoa zein solidarioagoa eratzen laguntzeko.
- Historiak partekatzea indarkeria prebenitzeko. Indarkeria ja-san duen jendea zuzenean ezagutzean, erkidegoko kideek sentsibilitate eta konpromiso handiagoa garatu dezakete, horrelako egoerak prebenitzeko eta aurre egiteko.

- Lan-saioak bultzatzea, narrazio bateratuak eratzeko.
- Giza Liburutegien bidez historiak sortzea eta zabaltzea.

Generoaren eta belaunaldi arte-kotasunaren arloko begiradak: funtsezko bi zutabe

- Jakintzak eta jakituria trukatzeko.
- Era guztietako esperientziak agerian jartzea.
- Berdintasuna sustatzea eta, horretarako, generoaren arloan nahiz belaunaldien artean dauden desberdintasunak nabarmentzea. Horrez gain, desberdintasunoi aurre egiteko eta gainditzeko ekintzak bultzatzea.
- Inklusioa eta aniztasuna sustatzea, kultura eta belaunaldi desberdinetako pertsonei hitza emateko.

- Prestakuntzarako eta autoprestakuntzarako eremuak sus-tatzea.
- Desberdintasuna aztertzeke jarduketak garatzea.
- Era guztietako gizakiek eremu bateratuetan bete-betean parte hartzea.

ERABIDE EMAKUME ELKARTEA

Lan-lerroak/estrategiak

Ekintza zehatzak

Erkidego zaintzaileak, zainketen aldeko apustu abian jartzeko

- Historiak partekatzea, erkidegoko kideek elkarren arteko laguntzarako sareak eratu ditzaten, enpatian eta zainketan oinarrituta.
- Hezkuntza eta sentsibilizazioa. Beste batzuen esperientziatik ikastea, jakintzak eta trebetasunak eskuratu ditzakete, euren burua eta gainerakoak hobeto zaintzeko eta, horrela, erkidegoan bertan zainketaren kultura indartzeko.
- Kultura artatzea eta eraldatzea: erkidegoaren esperientziak, historiak eta bizipenak biltzea eta partekatzea funtsezko zeregina izan daiteke ondare kulturala artatzeko eta eraldatzeko orduan.

- Laguntzarako sareak sortzea eta behar besteko tresnak ematea.
- Kaleko ekintzak egitea sentsibilizaziorako eta salaketarako.
- Ikaskuntzarako eremu partekatuak eratzea eta eustea.

LANBIDE HEZIKETARAKO HEZKUNTZA ZENTROA

	Lan-lerroak/estrategiak	Ekintza zehatzak
Indarkeria-rik gabeko lurralde eta erkidego biziak	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasgeletatik irtetea, erkidegoarekin harremanetan jartzeko. ● Indarkeria prebenitzea. ● Zeregin komunitarioa eta pertsonen arteko harremanak indartzea. ● Kidetza sustatzea eta ikasleak euren ikaslekuarekin inplikatzea. ● Ikasgeletako indarkeria eta elkarrekiko harremanak. ● Berdinen arteko errespetuzko harremanak sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Tresna eta metodologia berriak erabiltzea, erkidegoak mapatzeko eta diagnostikatzeko. ● Mapatzea eta bilakabide kritikoak egitea, ikasleek betetzen duten eremuan kokatzeko. ● Ikasgeletan errespetuzko eremu seguruak eratzea eta bermatzea.
Generoaren eta belarrialdiko arte-kotasunaren arloko begiradak: funtsezko bi zutabe	<ul style="list-style-type: none"> ● Zeharkako ikuspegi berrien bidez, edukiak elkarlanean eratztea. ● Generoa zeharkako eta curriculumeko edukitzat hartzea. ● Ikasgela era guztietako gizakien artean (adina, kultura, etxebizitza...) jakintza trukatzeko eta sortzeko eremu moduan bultzatzea. ● Hizkuntzaren erabilera. ● Esperientzia eta ikaskuntza aldarrikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Erakundeekin harremanetan egotea, curriculumeko edukiak garatzeko eta ikuspegi berriak benetan kontuan hartzeko. ● Behar besteko tresnak edukitzea, ikasgeletan generoa kontuan hartzen dela bermatzeko. ● Behar besteko jarraibideak ezartzea, ikasgelako testuinguruan berdintasuneko partaidetza dagoela bermatzeko.
Erkidego zaintzaileak, zainketen aldeko apustua abian jartzeko	<ul style="list-style-type: none"> ● Begirada eta ikuspegi berriak ezartzea, eduki tematikoak jorratzeko orduan. ● Zainketak apustu politikoa izatea eta ikasgeletan nahiz curriculumetan kontuan hartzea. ● Eskola berez erkidegoa dela ulertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Gaiak beste era batera jorratzea. ● Ikasgelako dinamikan zainketen aldeko apustua kontuan hartzea eta horretarako beharrezkoak diren tresnak edukitzea. ● Irakasleei eta ikasleei prestakuntza ematea.

